

ARGAZKI ERAKUSKETA

*Esku Zurien Jhotsa*



**08 / 05 / 1981. Madril.** Erregea ETak eraildako militarren senideak kontsolatzen ari da. Argazkia: Manuel Sanz Bermejo



**11 / 07 / 1997. Ermua (Bizkaia)** Milaka herritar, udalbatza buru dutela, manifestazioa egiten ari dira Ermuan, ETak bahitutako Miguel Ángel Blancoren askatasuna eskatzeko. Argazkia: Luis Tejido, EFE



**15 / 02 / 1996. Madril.** ETak bere bulegoan eraildako Tomás y Valiente irakaslearen ikasleak manifestazioa egiten ari dira Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, eskuak zuriz margotuta. Argazkia: Barriopedro. EFE



**24 / 05 / 2001. Bartzelona.** AVTren ekitaldi batean, gizon bat bere senidearen bila ari da ETak hildako biktimen argazkiak dituen kartel batean. Argazkia: Julián Martín. EFE





11 / 07 / 2000 • Ermua (Bizkaia)

ETAk Miguel Ángel Blanco bahitu eta hil zueneko hirugarren urteurrena dela-eta egindako elkarretaratzea. Argazkia: Txema Fernández. EFE

Terrorearen ezarpenaren ondorioz, ETaren aurkako borroka zibikoa, hasiera batean, gutxiengo heroiko baten kontua izan zen, eta, arian-arian, bere aldarrikapen bakezaleak konstituzionalismoaren defentsa ireki bihurtu zituen, giza eskubideen eta herritartasun-askatasunen bermatzaile bakar gisa, kriminalek eta haien konplizeek amestu zuten nazionalismo baztertzalearen aurrean.

Erakusketa hau tinkotasun horren aitortpena da, pixkanaka espainiar gizartean oihartzun handiagoa aurkitzen joan zena, eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideei eta Zuzenbide Estatuaren iraupenagatik beren bizitzak arriskatu zituzten epaile, politikari, kazetari eta herritar anonimoei egindako omenaldia.



FUNDACION  
Miguel Ángel Blanco

XXII ANIVERSARIO  
MIGUEL ÁNGEL BLANCO